



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko azaroaren 18a

128. ZK.

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

—Foru Legea, kreditu-gehigarri bat eta aparteko kreditu bat ematen dituen Nafarroako Unibertsitate Publikoa finantzatzeko. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

E SAILA:

**Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Kontseilu Europarrean 2020ko uztailaren 21ean onetsitako Europako funtsetan nahiz Espainiako Gobernuari proposatuko zaizkion kasuko proiektuetan Nafarroak parte hartu ahal izateari buruzko Osoko Bilkura monografikokoan onetsitako erabakiak (5. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak beste behin adierazten baitu indarkeria matxista oro errefusatzeko duela. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak haurren eta nerabeen eskubideekiko konpromisoa berresten baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Saharar herriaren autodeterminaziorako eskubidea berresten baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Legea, kreditu-gehigarri bat eta aparteko kreditu bat ematen dituen Nafarroako Unibertsitate Publikoa finantzatzeko.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko azaroaren 5ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Unibertsitate Publikoa finantzatzeko kreditu-gehigarri bat eta aparteko kreditu bat ematen dituen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2020ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **Foru Legea, kreditu-gehigarri bat eta aparteko kreditu bat ematen dituen Nafarroako Unibertsitate Publikoa finantzatzeko**

#### ZIOEN AZALPENA

2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legean gutxira 68.500.000 euroko finantzaketa aurreikusten da Nafarroako Unibertsitate Publikorako, partida hauetan jasotzen dena:

– “NUPen finantzaketarako hitzarmena” izeneko G10001 G1110 4455 322300 partida, 66.120.116 eurokoa.

– “NUPen finantzaketarako hitzarmena: hobekuntzak” izeneko G10001 G1110 4455 322303 partida, 1.368.884 eurokoa.

– “NUPen finantzaketarako hitzarmena: inbertsioak” izeneko G10001 G1110 7455 322300 partida, 1.011.000 eurokoa.

Maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege-dekretuak, zeinaren bidez onesten baitira, COVID-2019aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egitearren, kulturgintzari laguntzeko neurriak eta zerga arlokoak, azken xedapenetako seigarrenean aldatu egin zuen Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 81. arti-

kuluko 3. apartatuko b) paragrafoa, halako moduz non honako testu hau baitauka orain:

“b) Zerbitzu akademikoengatik ezartzen diren prezio publikoen eta legez ezartzen diren gainerako eskubideen ondorioz eskuratutako diru-sarreak. Nazio-lurralde osoan balio duten titulu ofizialeterakoak diren ikasketen prezio publikoak eta eskubideak autonomia erkidego bakoitzak ezarriko ditu, Unibertsitate Politikarako Konferentzia Nagusiak ezartzen dituen gehieneko muga barruan eta zerbitzu-ematearen kostuekin lotura daukatela.

Era berean, prezio publikoen eta gainerako eskubideen arloan legez agintzen diren salbuespen eta murriztapenen ondoriozko zenbatekoei dagozkien konpentsazioak ere ezarriko dira.”

Unibertsitate Politikarako Konferentzia Nagusiak, 2020ko maiatzaren 27an egindako osoko bilkuran, matrikula-prezio publikoen eredu berri bat onetsi zuen 2020-2021 ikasturteko graduiko ikasketak ofizialeterako; Nafarroaren kasuan, horrek esan nahi du 2020-2021 ikasturteko prezioa izanen dela 2011-2012 ikasturterako ezarri zena. Doikuntza horren ondorioz, kredituaren prezioa %7,14 jaitsiko da 2019-2020 ikasturterako ezarri ziren prezio publikoen mailak oinarritzat hartuta.

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren ekainaren 3ko 8E/2020 Foru Aginduaren bidez ezarri ziren Nafarroako Unibertsitate Publikoko prezio publikoak 2020-2021 ikasturterako. Foru agindu horretan, eta Unibertsitate Politikarako Konferentzia Nagusiaren 2020ko maiatzaren 27ko Osoko Bilkurak hartutako erabakiarekin bat, proposatzen da %2,38ko jaitsiera egitea lehen matrikulako kredituaren prezioan graduiko ikasketetan. Foru aginduan halaber jasotzen da jaitsiera hori hurrengo ikasturteetan mantenduko dela, harik eta kredituaren prezioaren jaitsiera %7,14koa izan arte.

Aurrekoaren ondorioz, Nafarroako Unibertsitate Publikoak 2020ko ekitaldian tasen bidez eskuratu dituen diru-sarrerak nabarmen txikiagoak izan dira ekitaldi horretarako bere aurrekontuan hasiera batez aurreikusitakoak baino. Prezio publikoen eredu berrirako egokitzapen partzialak ekarri du tasengatiko dirusarrerak 164.243 euro gutxiagoak izatea. Aurreko guztiagatik, beharrezko gertatzen da Nafarroako Unibertsitate Publikoari konpentsazioa ematea haren aurrekontuan hasiera batez aurreikusi zituenen aldean txikiagoak diren dirusarrera horiengatik; horretarako, aipatu 164.243 euroko kopuru hori gehituko zaio "NUPen finantzaketarako hitzarmena" izeneko G10001 G1110 4455 322300 aurrekontu-partidako kredituari.

Bestalde, ekainaren 16ko 22/2020 Errege Lege-dekretuaren bidez, COVID-19 Funtsaren eraketa arautu zen, eta haren banaketari eta ordainketei buruzko arauak ezarri ziren, transferentzien bidezko finantzaketa handiagoa emateko autonomia erkidegoei eta autonomia estatutua duten hiriei, COVID-19aren ondoriozko krisiak ekarri duen aurrekontu-eraginari aurre egite aldera. Funts horren tarteen artean 3. tarte dago, Hezkuntzako gastuarekin lotuta; guztira 2.000 milioi euroko zenbatekoa du, eta horren %20 goi mailako hezkuntzako gastura bideratuta dago.

Ondoren, irailaren 1eko HAC/8509/2020 ministro-agindua bidez zehaztu ziren Hezkuntzako gasturako 3. tartearen aurreikusitako baliabideez autonomia erkidegoen eta Ceuta eta Melilla hirien artean egin beharreko behin betiko banaketaren zenbatekoak. Tarte horretako 2.000 milioi euroko kopurutik, Nafarroako Foru Komunitateari 29.287.530 euro esleitu zitzaizkion.

Aurrekoaz esan beharra dago COVID-19aren pandemiaren eraginez Nafarroako Unibertsitate Publikoak 2020ko ekitaldiko aurrekontuan bere gain hartu behar izan dituela bere aurrekontuan hasiera batean aurreikusirik ez zeuden zenbait gastu eta inbertsio. Unibertsitateak kalkulatu du jarduketa horien inpaktua 750.000 eurokoa dela.

Aurreko guztiagatik, indarreko hitzarmenaren "Finantzaketako doikuntzak" izeneko 10. klausula aplikatuz, 2018-2020 eperako Nafarroako Uniber-

tsitate Publikoaren Finantzaketarako Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak erabaki zuen, 2020ko irailaren 28an egindako bileran, unibertsitatearen finantzaketa handitzea 2020an, bi gertaera horien inpaktuari dagokion zenbatekoa gehituz; hau da, Unibertsitate Politikarako Konferentzia Nagusiak erabakitakoa den unibertsitate-tasen jaitsierari dagokiona eta COVID-19aren pandemiari dagokiona.

Bi gertaera horiek Nafarroako Unibertsitate Publikoan izan duten inpaktu ekonomikoa kontuan hartuz, bidezkoa da, unibertsitateak berak egin dituen kalkuluei heldurik, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2020ko finantzaketa handitzea, guztira 914.243 euro gehituz: 164.243 euro, tasen inpaktuagatik; eta 750.000 euro, COVID-19aren inpaktuagatik.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua lehen paragrafoan ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta krediturik ez badago edo kontsignatuta dagoena aski ez bada eta ezin bada handitu aipatutako foru legean jasotako xedapenen arabera, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari, aparteko kreditu bat ematekoa, lehen kasuan, edo kreditu-gehirri bat ematekoa, bigarrenetan.

Era berean, bigarren paragrafoan xedatzen du kreditu-gehirria eta aparteko kreditua edozein gastu programatako beste kreditu erabilgarri batzuekin finantzatzen ahalko direla, are Parlamentuak zuzenketen ondorioz edo foru lege honen xedapenak direla-eta berariaz onetsitako kredituetatik datozenekin, edo ekitaldi ekonomiko berean egiaz izandako edo aurreikusitako diru-sarrera handiagoren kargura.

#### 1. artikulua. Kreditu-gehirri bat ematea.

164.243 euroko kreditu-gehirria ematen da, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren finantzaketa beharrei erantzuteko.

Kreditu-gehirri hori aurrekontu-partida honetan aplikatuko da:

PARTIDA	ZENBATEKOA
G10001 G1110 4455 322300 "NUPen finantzaketarako hitzarmena"	164.243 €

Kreditu-gehigarria aurrekontu-partida honetako kreditu erabilgarriaren kargura finantzatuko da:

PARTIDA	ZENBATEKOA
G10001 G1110 4800 323100 Bekak eta laguntzak unibertsitate ikasketetarako	164.243 €

**2. artikulua.** Aparteko kreditu bat ematea.

750.000 euroko aparteko kreditua ematen da, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren finantzaketa beharrei erantzuteko.

Aparteko kreditu hori aurrekontu-partida honetan aplikatuko da:

PARTIDA	ZENBATEKOA
G10001-G1110-4455-322305 COVID-19 NUPen finantzaketarako hitzarmena	750.000 €

Aparteko kreditua aurrekontu-partida honetako kreditu erabilgarriaren kargura finantzatuko da:

PARTIDA	ZENBATEKOA
110000-11000-4000-000000 COVID-19 Estatuko Administrazioaren transferentzia	750.000 €

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Kontseilu Europarrean 2020ko uztailaren 21ean onetsitako Europako funtsetan nahiz Espainiako Gobernuari proposatuko zaizkion kasuko proiektuetan Nafarroak parte hartu ahal izateari buruzko Osoko Bilkura monografikokoan onetsitako erabakiak.**

Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatua betetzeko, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen Kontseilu Europarrean 2020ko uztailaren 21ean onetsitako Europako funtsetan nahiz Espainiako Gobernuari proposatuko zaizkion kasuko proiektuetan Nafarroak parte hartu ahal izateari buruzko Osoko Bilkura monografikokoan onetsitako erabakiak.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hau argitara dadin agintzen dut.

Iruñean, 2020ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Kontseilu Europarrean 2020ko uztailaren 21ean onetsitako Europako funtsetan nahiz Espainiako Gobernuari proposatuko zaizkion kasuko proiektuetan Nafarroak parte hartu ahal izateari buruzko Osoko Bilkura monografikokoan onetsitako erabakiak**

**Lehenbizikoa.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du –"Next Generation, una visión para Navarra" dokumentuan jasota dauden eta Osasun eta Gizarte Eskubideen Departamentuari dagozkion proiektuak garatuz– zerbitzu publikoen azpiegiturak (ospitaleak, osasun-zentroak, egoitza publikoak, ikastetxeak, unibertsitateak eta abar) eraberritzeko plan bat (edo gehiago) gauza ditzan; halaber, premiatzen du etxeen egokigarritasun funtzionala bultzatzeko bideak ezar ditzan, eta has dadin eraikitzen edo birgaitzen esparru publikoak, etxebizitza eredu desberdinak eskaini ahal izateko, hala nola etxebizitza babestuek, familiako etxeak, belaunaldiarteko etxeak, co-hou-

singa eta eguneko zentroak; hori guztia, adinekoak edo mendekotasuna duten pertsonak beren ingurune hurbilenean geratzea bermatzeko.

**Bigarrena.**

1. Nafarroako Parlamentuaren iritziz, Nafarroan amiantoa kentzeko Plan Zuzentzailea egitea aurrerapauso garrantzitsua zen, Espainian lehengoa, eta, une hauetan, presa dago beharrezko baliabide ekonomikoak erabiliz planean jasotako urratsak egiteko, plana pixkanaka-pixkanaka eta modu eraginkorrean garatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuaren arabera, amiantoa kentzeko Plan Zuzentzailearen garapena bat dator Europako Suspertze eta Erresilientziaren Mekanismoan eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean ezarritako ildo estrategikoekin, osasun, ingurumen eta trantsizio ekologikoaren ikuspuntutik; gauzak horrela, Nafarroako Gobernu premiatzen du Nafarroan amiantoa detektatu, kendu eta segurtasunez desagerrarazteko planaren garapena Europako fondoak eskuratzeko asmoz aurkeztuko dituen proiektuekin batera aurkez dezan.

**Hirugarrena.**

1. Nafarroako Parlamentuaren iritziz, bultzada garrantzitsua eman behar zaio Nafarroan energia berriztagarrien garapenari, sektore hori estrategikoa baita ingurumen helburuetarako eta ekonomia suspertzeko; hori dela eta, argi dago Administrazio Publikoak izan behar duela plan horren buru, energia horien garapen espekulatiboa saihesteko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du, batetik, azter dezan titulartasun publikoko erakunde bat sortzeko aukera (energia berriztagarriekin zerikusia duten proiektuen buru izan dadin, eta Europako funtsak batu eta kudea ditzan), eta, bestetik, Next Generation programaren markoan Europako funtsak eskura-

tzeko asmoz aurkeztuko diren proiektuen artean, erakunde publiko horri buruzko proiektu bat aurkez dezan.

#### **Laugarrena.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenetasuna eman diezaion bai abiadura handiko trenari, bai Ubidearen bigarren faseari, funtsezko azpiegiturak baitira gure komunitatearen etorkizunerako. Lehenespen hori argi utzi behar dute bai Nafarroako Gobernua, bai Espainiakoak, baliabide zein epeei dagokienez, administrazio bien aurrekontu orokorretan, baita COVID-19aren pandemia dela eta gaitutako Europako Fondoetan ere.

#### **Bosgarrena.**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du inbertsioa egin dezan hezkuntza-sistema hobetzeko, eta, batez ere, COVID-19ak eragindako pandemiaren garaian ikastetxeen itxieraren ondorioz ikaskuntza-krisian erori diren ikasleei laguntzeko, ikasleek garatzen dituzten ezagutzek, gaitasunek eta trebetasunek zerikusia baitute hazkunde ekonomikoarekin, heldutasunean laneratzearekin, kohesio sozialarekin eta Foru Komunitateko ongizatearekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hezkuntza-administrazioaren digitalizazioan inberti dezan. Horretarako, Foru Komunitate osoan zuntz optikoren sarea garatzeko inbertsioa handitu beharko du, eta, halaber, ahaleginak egin beharko ditu, negoziazioen eta lankidetzaren publiko eta pribatuaren bidez, telekomunikazio-operadoreekin akordioak lortzeko, nafar guztiek zuntz optikora iristeko aukera izan dezaten, bizi diren tokian bizi direla, eten digitalaren arazoa desagerrarazteko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikastetxeen azpiegiturretan inbertsioak egin ditzan, esparruak birkonfiguratzeko, eta, horrela, ikastetxea erdigunean duen hezkuntza eredu kooperatiboago eta parte-hartzaileago bat sustatzeko. Halaber, eredu horren bidez lankidetzaren ahaltsua sustatzen lagundu nahi da, ikastetxeek autonomia eta energianahikotasun handiagoa izan dezaten; horretarako, eguzki-energian eta hotz- eta bero-klimatizazioaren sistemetan inbertsio nabarmenak eginez, klimatizazioa edukitzeko ahalmena emango zaie, zentroek irekita jarrai dezaten.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du digitalizazioarekin, berrikuntza metodologikoan eta gaikuntza digitala-

rekin zerikusia duten prestakuntza-planetan inberti dezan.

#### **Seigarrena.**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2019-2023 Nafarroako Baso Agenda errealtate berrira egoki dezan, eta beharrezkoak diren lankidetzaren publiko eta pribatuaren mekanismoen bidez eredu eraginkor bakarra ezar dezan, gure Komunitateko baso pribatuaren jabetzaren zatikatzea kontuan hartuta. Nafarroako lurraldearen % 25 basoa denez, egokitu behar du bere Baso Agenda; hain zuzen, ezurrezko produktua lortzeko asmoz basoak ustiatzeko planifikazio azkar eta iraunkorraldatu eta ezarri behar ditu, honako hauek lortzeko:

a. Ziurtagiridun zura, eraikuntza jasangarriaren eredu berrietan erabiltzeko modukoa.

b. Basoko biomasaren eredu desberdinak, Foru Komunitatearen lurraldean bertan erabiltzeko, energia-eraginkortasunerako planak agindutako jarraibideak betez.

c. Agoitzen transformazio eta logistika zentro bat eraikitzea, behar den erregaia –peleta edo ezpalak– ekoizteaz eta produktua baldintza onetan biltegitratzeaz arduratuko dena. Halaber, banaketa-zentroa izanen da, eta azken kontsumitzaileen artean zein komunitateko gune geografiko desberdinetan eraikiko diren azpizentroyen artean banatuko ditu produktuak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du labor ditzan Nafarroako Energia Planean (2030. urteari begira) ezarritako epeak, eta energia elektrikoaren ehuneko ehun berriztagarria izatea ahalik eta epe laburrenean lor dezan. Energia berriztagarriak biltegitratzea arazo handiena izanik, jardun-ildo nagusien artean, energia hori biltegitratzea optimizatzerako bideratutako proiektuak garatzea proposatzen da.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du energia-eraginkortasuna lortzeko benetako plan bat ezar dezan, bere eraikin guztietan energia-eraginkortasuna bultzatzeko; planak barnean hartuko ditu:

a. Eraikin publiko zein pribatuak birgaitzeko berariazko planak.

b. Energia-eraginkortasunaren Europako estandarretan oinarritutako eraikin berriak egitea.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du burutu ditzan ekoizpen-prozesuen digitalizazio eta modernizazioa, baita enpresa bateko fase operatibo guztien –erosketak, biltegitratzea, salmentak, banaketa eta proze-



suetan sortutako datuen ebaluazioa– digitalizazio eta modernizazioa ere.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du berariazko planak azter ditzan, COVID-19aren krisiaren ondorioz kalte handienak jasan behar dituzten sektoreentzat (adibidez, ostalaritza, kultura eta kirola).

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du lehenbailehen aurkez dezan txoke plan bat plan, emakumeak STEM edo STEAM motako ikasketetan pilaka sartzeko.

#### **Zazpigarrena.**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du, Nafarroan, genomikaren arloko teknologia, diagnostiko eta terapiaren berrikuntzarako atala sor dezan, ospitale, unibertsitate eta ikerketa zentro publiko zein pribatuekin elkarlanean; atal horrek Europa mailan medikuntza pertsonalizatuaren erreferentzia bihurtuko luke Foru Komunitatea, arreta batez ere honako gai hauetan jarrita: genomaren sekuentziazioa, berrikuntza teknologikoa eta diagnostikoarena, terapia berritzaileak eta aurreratuak, bai terapia genetikoan, bai immunoterapian, baita zelula terapian ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du osasun arloko Big Data eta Adimen Artifizialaren sistema bat gara dezan, osasun sistema publikoarekin, unibertsitateekin eta ikerketa zentroekin elkarlanean, Nafarroa Europako erreferentzia-eskualde bihurtzeko, osasun-laguntzaren kalitateari, ikerkuntza klinikoari eta benetako bizitzako datuekin egiten diren ikerketei dagokienez.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du pertsona ardatz duen laguntza eredu orohartzaile eta integratu bat gara dezan, aurrez aurreko arretaren kalitatea eta osasun arloko profesionalen eta gaixoen arteko harreman hurbila, konfiantza oinarritua, berreskuratzeko, eta Europa mailan erreferentzia izateko, osasun arloko emaitzei dagokienez.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du Nafarroako osasun sisteman zeharkako departamentu edo atalak sortzea bultzatzen, erakunde publiko eta pribatuekin elkarlanean; departamentu edo atal horiek espezializazio handiko arloen inguruko prestakuntza, laguntza eta ikerkuntza jarriko dute arreta (hala nola transplanteak, dialisia, pediatriako zainketa intentsiboetako unitateak edo mugimenduen nahasmenduak), Europa mailan erreferentzia izateko.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du norbera babesteko ekipamendu propioak eta COVID eta beste gaixotasun batzuk baieztatzeko test diagnostikoak ekoiztearen aldeko apustua egin dezan, erakunde publiko zein pribatuen laguntzarekin.

#### **Zortzigarrena.**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin bat etorrita, bultzatzen dezan toki-erakundeentzako aholkularitza-zerbitzu egonkor, asmo handiko eta eraginkorra, Europako funts eta programen arlokoa, funts horiek eskuratzeko eta programetan parte hartzeko proiektuak aurkezten eta kudeatzen lagunduko duena, alde biek egokientzat jotzen duten forman.

2. Oraingo egoeraren testuinguruan, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du behar diren bideak ezar ditzan Foru Komunitateko toki-erakundeek Next Generation funtsetan parte hartzea bultzatzeko; horrela, bere ekintza-ahalmena eta funts horrek lortu nahi duen suspertzearen helburua uztar ditzake, erkidegoko ekonomia eta gizartea suspertzen lagunduz. Toki-erakundeen partaidetza Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin batera zehaztu behar da, eta ekintza arloen identifikazioa jaso behar du, baita plan edo programen deskribapen zehatza eta Europako finantzaketa duten proiektuak gauzatzea ere.

#### **Bederatzigarrena.**

Nafarroako Parlamentuak 2021. urterako Nafarroako aurrekontu progresistak onartzeko konpromiso politikoa agertzen du, aurrekontu horiek Nafarroa Suspertu Planaren garapenerako trazio palanka, NGEU funtsen banaketa hobearen bermea eta, hitz batez, sektore publikoaren lidergoia eta ekonomiaren eta gizartearen suspertzea justua eta berdintasunezkoa ziurtatzeko tresna izan daitezen.

#### **Hamargarrena.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du gazte politikak indar ditzan, enplegurako zubia baitira gazteek langabezia geratu edo ikasketa formalak amaitu ondorengo lau hilabetetan lan-, prestakuntza-, praktika- edo ikaskuntza-eskaintza bat jasotzeko aukera izan dezaten; aldi berean, kaltetuak izan daitezkeen gizataldeetako gazteak –niniak, emakume gazteak, desgaitasuna duten gazteak– gizarteratzeko aukerak hobetzea aurreikusten da.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du, Nafarroako Gazteriaren Insti-

tutuaren bitartez, gazteentzako aterpetxe eta babeslekuen garrantzia berreskura dezan, bizikidetzeta eta prestakuntza guneak eta topaguneak direlako, eta 2030 Agendaren eta garapen iraunkorrerako helburuen inguruan sentsibilizatu, prestakuntza eman eta zabalkundea egiteko katalizatzaile moduan erabil daitezkeelako, gazteak aldaketaren eragile nagusiak direla kontuan hartuta. Aldi berean, instalazioak eraberrituko dira, esparru iraunkor bihurtzeko, hezkuntza ez formaleko programen bidez gazteentzako jarduerak eta prestakuntza emateko erabil daitezten.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du gazteen artean osasun mentaltaren tratamendua bultzatzea; gazteei egoera edo jokabide bakoitzean eragina duten faktoreen inguruko hausnarketa-tresnak eman behar zaizkie, norbera bere buruarekin ondo sentitzea, emozioak ezagutu eta ulertzea, gertaerak egoki ulertzea eta besteekin eta ingurunearekin konektatu eta harreman positiboak izatea ahalbidetzen duen ongizate emozionala lor dezaten.

#### **Hamaikagarrena.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

– Nafarroako toki-erakundeekin gobernantza partekatua egin dezan, elkarrekin hitz egiteko aukerak bermatuta, beren ekonomien eraldaketa jasagarri, ekologiko eta digitala bultzatzen diren proiektuak prestatze aldera, Nafarroan behar den lurralde- eta gizarte-kohesioari eutsiz.

Hori guztia, irizpideak komunikatzerakoan gardentasun printzipioa beteko da, eta Europako finantzaketaren bidez garatzeko moduko proiektuen kontuak behar bezala emango dira.

– Beharrezko jarduerak bultzatzea, gizarte zibilak eta enpresek batera aurkez ditzaten Nafarroa suspertzeko proiektuak, Europako Fondoek bidez finantza daitezkeenak.

#### **Hamabigarrena.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

– Europako funtsak esleitzeko prozedurak arintzeko beharrezkoak diren aldaketa legalak eta administratiboak egin ditzan, izapidetzeko oztopo burokratikoak txikiagotzeko, baina gardentasun eta segurtasun juridiko osoz.

#### **Hamahirugarrena.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Nafarroako enpresa txiki eta ertainei laguntzeko mekanismoak ezar ditzan,

“Horizonte Europa” I+G+b programako funts ekonomikoak eskuratzea errazte aldera.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du sendo dezan Nafarroako enpresa txiki eta ertainentzako aholkularitza espezializatua, irekita dauden deialdi publikoak indartuz, baita enpresa txiki eta ertainen eskariak Gobernuak –Europako Proiektuen Bulegoa– aurkeztuko dituen proiektuetan sartuz ere.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du bultzatzea ditzan mekanismo lagungarriak, Nafarroako enpresa txiki eta ertainek elkar ezagutzeko eta sareko lana sustatzeko, horrela errazagoa izanen baita I+G+b proiektuak Europako erakundeei proposatzerakoan bazkide estrategikoak aurkitzea.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du susta dezan Europako Batzordeak “Horizonte Europa” programaren baitan kalitate-bereizgarri gisa ematen duen “Bikaintasun Zigilua” jaso duten, baina, aurrekontuko arrazoiak direla medio, finantzaketarik gabe geratu diren Nafarroako proiektu berritzaileen garapena.

#### **Hamalaugarrena.**

1. Europako Next Generation suspertzeko funtsen baitan Nafarroak hainbat jarduketa eta proiektutan parte hartzen duenez, Nafarroako Parlamentuak, Europako Gaietarako Ponentziaren bidez, jarduketa eta proiektu horien jarraipen eta kontrola egiten du aldizka.

2. Nafarroako Gobernuak aldian-aldian informatuko du Ganbera, jarduera hori egiteko beharrezkoak diren datuak emanez.

#### **Hamabosgarrena.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du harrera baliabideentzat arretarako eredu berri bat aurkez dezan; eredu horrek, genero-ikuspegia eta ikuspuntu feminista zeharka erabiltzeaz gain, ikuspegi hori Zerbitzu Publikoen Arreta Sare osora hedatu behar du, paradigmaren aldaketa esanguratsua ekarriko baitu, harrera-baliabideen kontzeptualizazioari dagokionez.

#### **Hamaseigarrena.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Ekonomia Sozialaren bigarren Plana aurkez dezan, abagune bikaina baita eredu hori Nafarroaren susperraldiaren zutabe nagusi bihurtu dadin; izan ere, horrela dela agerian utzi du lehenengo planaren balorazio positiboak, planak bete baititu bere hiru helburu nagusiak: enplegu iraunkorra areagotzea, enpresa sarea handitzea eta Nafarroa ekonomia sozialean erreferentzia



den lurralde gisa Espainian eta European finkatzea.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du garrantzia eman diezaion gertutasunean, elkartasunean eta balio etikoetan oinarritutako ekonomia-ereduari, aipatu balioek erakutsi baitute erresistentzia handiagoko ekonomia sareak –etorkizunean oraingoa bezalako krisiei beste modu batean erantzun ahal izanen dietenak– sortzeko ahalmena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Ekonomia Sozial eta Solidarioaren balioak susta ditzan, erresilientzia handiagoa dutela eta bizi duguna bezalako krisialdietan beharrezkoak direla erakutsi digutelako. Hori guztia dela eta, honako hauek lortzeko bidean aurrera egin behar dugu:

– Ekoizpen eta kontsumo zirkuitu laburretan egiten den produkzioa.

– Industriaren eta energiaren trantsizioa eta trantsizio agroekologikoa, eredu iraunkorrak ezartzeko.

– Hegoaldeko herrialdeetako biztanleen eskubideak errespetatzen dituen merkataritza-harremana, hegoaldeko ekoizleen eta iparraldeko kontsumitzaileen artean sare solidarioak sortzen dituena, eta merkataritza horren mozkinak hobeto banatzen dituena, gutxi batzuen eskuetan gera ez

daitezen, beste askoren pobrezia eta prekarietatea areagotu bitartean.

– Guztien probetxua, open data eta lankidetzaren oinarri dituen ezagutzaren ekonomia.

– Bizitza erdigunean jartzen duen ekonomia eredua, bizitza eta zaintza eustera bideratutako neurriak dituena.

– Finantza etikoak.

– Kontratazio publiko arduratsua.

#### **Hamazazpigarrena.**

Nafarroako Parlamentuak Europako erakundeak premiatzen ditu 2021. urtearen hasieratik EB Hurrengo Belaunaldia Europako Suspertzeko Fondotik ordainketak aurretik egiteko aukera gaitu dezaten, dirulaguntza jaso behar duten estatu kideek pandemiaren bigarren olatuaren ondorio negatiboak lehenbailehen aurre egitea ahalbidetzeko.

#### **Hemezortzigarrena.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, EB Hurrengo Belaunaldia Europako Suspertzeko Funtseko inbertsioak erakartzeko prozesuan, lehenetsi ditzan sektore estrategikoetan egin nahi den inbertsio publikoko proiektuak, osasun ikerkuntzari eta industria farmazeutikoaren garapenari zuzenean lotuta dauden horietatik hasita.

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak beste behin adierazten baitu indarkeria matxista oro errefusatzen duela.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. "Nafarroako Parlamentuak berriro ere bere arbuioa adierazten du emakumeek pairatzen dituzten hainbat diskriminazioren ondoriozko edonolako indarkeria sexistaren aurrean, edozein alor eta testuinguruan.

2. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten du, lanean tinko jarraitzekoa emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeriak eta ahuldade egoerak sortzen dituzten desberdinkeria guztien aurka.

3. Nafarroako Parlamentuak emakume eta neskato erasotu eta/edo erailenganako elkartasuna adierazten du, indarkeria sexista muturrekoenaren biktima diren aldetik, eta bere laguntza osoa eskaintzen die haiei eta haien familiei.

4. Nafarroako Parlamentuak adierazten du beharrezkoa dela adin guztietako gizonezko guztiek konpromisoak eta posizio aktiboak hartzea emakumeenganako edonolako indarkeriaren aurka.

5. Nafarroako Parlamentuak herritar guztiak gonbidatzen ditu jarrai dezaten emakumeen aurkako indarkeria arbuizatzen, eta konpromisoa erakusten indarkeria horren deuseztatzearekin, kontrol patriarkalaren adierazpen oro eta emakumeen askatasunerako eta autonomiarako muga eta baldintzapen oro salatzen, eta parte har dezaten azaroaren 25aren inguruan antolatzen diren ekitaldi guztietan.

6. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Deuseztatzearen Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin; horretarako, elkarretaratze bat egingen da Parlamentuko atalondoan, non adierazpen hau irakurriko baita. Halaber, begizta bioleta bat ipiniko da Parlamentuaren fatxadan.

Gainera, eta sinbolikoki, Parlamentuko atalondoan aulki huts bana paratuko da genero-indarkeriaren biktima izandako emakume bakoitzeko, 2020an guztira izandako biktima-kopurura iritsi eta kopuru hori irudikatu arte (azaroaren 12ra arte, berrogei)". (10-20/DEC-00104)

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak haurren eta nerabeen eskubideekiko konpromisoa berresten baitu.**

### **ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du honakoetara bideraturiko neurriak bultzatzeko:

1. Gogoan izatea legebiltzar honek hartutako erabaki guztiak, bai krisiari emandako erantzunean bai suspertzeari dagokionez, eragina dutenak haur eta nerabeengan, bai eta haurren eskubideei buruzko hitzarmenean jasotako printzipio gidariak ere; hots: haurren interes gailena; bizirako, biziraupenerako eta garapenerako eskubidea; parte hartzeko eskubidea, eta diskriminaziorik ezerako eskubidea.

2. Hurrei buruzko osoko bilkura monografiko bat sustatzea, COVID-19ak haurrengan duen inpaktuaz eztabaidatzeko.

3. Sustatzea Nafarroako udalek haurren eskubideen babeserako toki-sistemak eraiki ditzaten, prebentzioan eta lan komunitarioan oinarrituak eta haurren interes gailena goiburutzat izanen dutenak.

4. Haurren eskubideen sustapenera Nafarroako Gobernu departamentu guztiak biltzea, halako moldez non haurrentzako arau-esparru berri baten onespina sustatuko baita, ikusmolde integral batetik egina, gobernu-programan jasotzen den bezala.

5. COVID-19ak gure erkidegoan bizi diren haur eta nerabeengan duen inpaktua aztertzea; batez ere, zaugarrien diren taldeengan duena, eta horren arabera egokitzea gure Nafarroa Suspertu 2020-2023 Plana. Eta hartuko diren neurriek haurrengan duten inpaktua aintzat hartzea. Pande-

miak Nafarroako haurrengan duen inpaktuaren azterketa sustatzea.

6. Ardurapean seme-alaba adingabeak dauzkaten familiek jasotzen dituzten larrialdiko laguntza sozialak indartzea, familiarik zaugarrienak lehenetsiz.

7. Eskola-uzte arriskua, desgaitasuna edo arrakala digitaleko egoera duten hurrei zuzenduriko hezkuntza-programak indartzea. Nafarroako haur eta nerabe guztien hezkuntzarako eskubidea egikaritzeko berdintasuna bermatzera bideraturiko neurriak hartzea.

8. Lurralde-plangintzan eta mugikortasun-estrategietan haur- eta jasangarritasun-ikusmolde bat txertatzea.

9. Pandemiaren aurka eta suspertzearen alde hartzen diren erabakietan haur eta nerabeek duten partaidetza areagotzea.

Aurreko neurriek oraindik gehiago hurbilduko gaituzte gure erkidegoko herritarrengana eta haien beharrezanetara, eta modua emanen digute gure estrategiak haurrak ipin ditzan COVID-19aren ondoriozko krisiari eman beharreko erantzunaren eta suspertzearen erdigunean, eta, aldi berean, 2030 Agendak 10 urteko eperako ezartzen dizkigun helburuen lorpenarekiko gure konpromisoa indartzeko.

Konpromisoa hartzen dugu gaur, 2020ko azaroaren 20an, Nafarroako haur eta nerabeekin eta gure erkidegoko etorkizunarekin, inor ere atzean ez uzteko". (10-20/DEC-00105)

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Saharar herriaren autodeterminaziorako eskubidea berresten baitu.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak berresten du Saharako herriak autodeterminazio-eskubidea daukala, Nazio Batuek emandako ebazpenekin bat.

2. Nafarroako Parlamentuak gogorarazten du, Espainiak, Lurraldeko potentzia administratzaile gisa, orain de iure, bere gain hartu zuela Nazioarteko Komunitatearen aurrean "saharar populazioaren interesak babestea eta bere erakunde politikoak garatzea, Gobernu propioaren osotasunera eramateko".

3. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten ditu Saharako herriaren askatasunaren alde eta eskubide legitimoak berreskuratzearen alde onetsi diren adierazpen instituzional eta gainerako erabaki guztiak.

4. Nafarroako Parlamentuak gogorarazten du Marokok legez kanpo okupatzen duela Mendebaldeko Sahara eta ez zaiola inolako subiranotasunik aitortzen.

5. Nafarroako Parlamentuak funtsezko deritzo Mendebaldeko Sahararen lurralde-batasuna eta nazioartean aitortuta dituen mugak errespetatzeari.

6. Nafarroako Parlamentuak uste osoa du Saharar Estatu Independente bat oreka- eta egonkortasun-faktorea dela erregioan.

7. Nafarroako Parlamentuak erabateko konbentzimendua dauka Mendebaldeko Saharako problemak bere horretan dirauela sahararrei beren askatasun eta autodeterminaziorako eskubide zilegiak ukatzen zaizkielako.

8. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Marokoren eta Fronte Polisarioaren artean Nazio Batuen babesarekin adosturiko Mendebaldeko Saharako su-etena Marokok hautsi izana, eta sakon deitoratzen du saharar herriari inposaturiko gerra.

9. Nafarroako Parlamentuak Nazio Batuei eskatzen die bere erantzukizunaren arabera joka dezatela eta aplikatu ditzatela Mendebaldeko Saharari buruzko kasuko ebazpenak, zeinak Marokok etengabe urratzen baititu, men egiteari uko eginik.

10. Nafarroako Parlamentuak bipil sinesten du Mendebaldeko Sahararen arazorako soluzio egokiena Nazio Batuek 1991n taxaturiko irtenbide-plana zorrozki aplikatzean datzala. Plan hori Segurtasun Kontseiluak 690/S/RES/(1991) ebazpenaren bidez onetsia da, eta Marokok eta Fronte Polisarioak onartu zuten. Eta beharrezkoa da egun bat erabakitzea erreferenduma egiteko, hainbat aldiz Marokok ipinitako oztopoengatik atzeraturikoa.

11. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du Mendebaldeko Saharako egoera gertutik jarraitzeko". (10-20/DEC-00106)

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias